



Ayuntamiento de  
**Pamplona**

**Iruñeko**  
Udala

T. 948 420 100 / 010  
www.pamplona.es

ÁREA DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS,  
MOVILIDAD Y SOSTENIBILIDAD

Sostenibilidad

PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO,  
MUGIKORTASUNEN ETA  
JASANGARRITASUNEN ALORRA  
Jasangarritasuna

## IRUÑEKO ESKOLA BARATZE EKOLOGIKOEN PROGRAMA



***“...Beraz, batek bere lorategia landatzen du, eta bere arima apaindu, itxaron gabe  
beste batek loreak ekar diezazkion....”*** . Jorge Luis Borges

***“Hezkuntzan, behar-beharrezkoa da naturarekin harremanetan egotea”*** . Heike  
Freire

***“Haurren esperientziek elikatu beharko lukete eskola”*** Francesco Tonucci



## 1. SARRERA

Hamarkada batzuetan zehar baratze-lurak gutxitu eta bertan behera utzi ondoren, baratze berriak agertzen hasteak aberasten du orain hiriko paisaia, eta ortuariz elikatzen gaitu, baina baita baratzeek gordetzen duten jakinduria herrikoiaz ere, ortzi-muga berriak zabaltzeaz gain elikadura-burujabetasunerantz.

Hiri-baratzeak ugaritzen ari dira, ekimen pribatu zein kolektibo gisa, eta Iruñean ere oihartzuna lortzen ari dira tankera horretako ekimenak. Hiri-baratzeen goranzko joeran badu zerikusirik hezkuntza-komunitateak egindako lanak, bere ekimenez abiatu baitu eskola-baratze ekologikoa, diziplina anitzeko hezkuntza-baliabide integratzaile gisa.

Hiri-baratzeen zein eskola-baratzeen ugaritzearen sinergiak baliatuta, Iruñeko Udalak bere ildo estrategikoetan txertatu du eskola-baratzeak Iruñeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan finkatzeko ekimena. Horretarako, giza baliabideak eta baliabide ekonomiko zein materialak bideratuko dira halako hezkuntza-baliabide baliagarria curriculumean aplikatzeari bide emateko.

Horretarako, baliabide batzuk eskaintzen dira: Unitate Didaktiko bat, eskola-baratzeak curriculumean txertatzeko; babes logistiko eta ekonomikoa, eskola-baratzeak sortzeko; irakasleendako prestakuntza eta ikasleendako lantegiak. Hori dena xede hartuta baratzeak izan daitezten benetako ikaskuntza gune gizarte, zientzia, arte, teknologia, gastronomia, kultura eta bestelako esparruetan, bai eta ikastetxeen arteko esperientzia-trukea eta familien prestakuntza-bidea ere. Hori horrela, asmoa da eskola-baratzeak esperientziak eta balio etikoak, gizalegezkoak, ingurumenekoak, osasunekoak eta abar partekatzeko eta gozatzeko gunea izatea, bidenabar sustatuta ikasleen lotura positiboa natur ingurunearekin, hori baita ingurumen-hezkuntzako abiapuntu nagusia.

Azken batean, eskola-baratzeek ingurunearen zein pertsonen osasuna lantzen lagundu nahi dute, hurbileko elikadura osasungarriarekin zuzeneko harremanetarako gune bat sortzeko. Jarduketa hori Iruñeko Udalak 2016an hartu zuen konpromisoaren hazietako bat gehiago da, orduan atxiki baitzizaion Milango Ituna izenarekin ezagutzen den Hiriko Elikadura Politikako Itunari eta 2030 Estrategia – Iruñeko Hiri Agendari, zeina berriki onetsi eta Europako nahiz Espainiako Hiri Agendarekin eta Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat lerrokaturik baitago.



## 2. AURREKARIAK

Iruñeko Udalak 2017-2018ko ikasturtean ekin zion Eskola Baratze Ekologikoen programari, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako bi ikastetxek parte hartu zuten programa pilotu baten bidez.

Orduz geroztik, ikasturte bakoitzean, ikastetxe gehiago sartu dira programan, Iruñeko eskola-baratze ekologikoen sarea indartuz eta esperientziak gehituz gainerako ikastetxeei.

Gaur egunera arte, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako zortzi ikastetxek eta Udaleko Haur Eskola batek hartu dute parte Eskola Baratze Ekologikoen programan.

## 3. HELBURUAK

Programa honen **helburu nagusia** da **ingurumen-hezkuntzako** haziak landatzea, norbanakoengan zein taldean aldaketak eraginen dituztenak gizarte jasangarriago baten alde aurrera egiteko.

Eskola-baratzeak, gainera, beste helburu batzuk bilatzen ditu, besteak beste, hauek:

- Askotariko ezagumenduen ikasketa-ikasgela eskaintzea.
- Ikasketa esanguratsua erraztea eskola-baratzean izandako esperientzien eta bizipenen bitartez.
- Esperientziak eta balio etikoak, giza-balioak, ingurumenekoak, osasunekoak eta abar partekatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatzea.
- Eskolako patioak, bereziki, eta hiria, oro har, atseginago egitea eta naturalizatzea.
- Elikadura osasungarria eta hurbilekoa sustatzea.

## 4. NORI ZUZENDUA

Programa Iruñeko udal-mugarteko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiei zuzenduta dago.



## 5. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Hezkuntza-proiektu honek funtsezko bi zutabe ditu:

1. **Baratze ekologiko bat martxan jartzea** (sortu berria zein biziberritua): baratzearen planteamendua, diseinua, sormena eta mantentze-lanak hezkuntza-komunitate osoak eginen ditu (ikasleek, familiek, irakasleek, ikastetxeko langileek...), modu kolektibo eta partizipatiboan.
2. **Curriculumean sartzea**: baratzea ikasteko gune gisa ulertuta, curriculumean txertatu nahi ditugu baratzearekin lotuta egin daitezkeen diziplina anitzeko jarduerak didaktiko askotarikoak. Horretarako, [Unitate didaktiko](#) bat eskaintzen da, 25 jarduerak barne hartzen dituena. Arrakasta lortzen duten jarduerak eskola-curriculumean txertatuko dira, eta ikasturte bakoitzean, jarduerak garatu ondoren, haien inguruko ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak eginen dira.

Horretarako, ikastetxeek **programan bi ikasturtez jarraian parte hartzeko** konpromisoa hartuko dute; haietan, honako ekintza hauek gauzatuko dira:

### 5.1. Lehen ikasturtea

1. **Irakasleen prestakuntza**: ikastetxeko irakasle guztiek 12 orduko prestakuntza jasoko dute, ikastetxean ikasturte osoan zehar. Prestakuntza hori Irakasleei Laguntzeko Zentroaren (ILZ) ziurtagiria izanen du.
2. **Lantegiak ikasleekin**: lantegiok ikastetxeko hainbat ikaste-talderekin eginen dira, ikasleak motibatu eta eskola-baratzea curriculumean errazago txertatzeko.
3. **Hezkuntza-komunitatearen motibazioa**: lantegi teoriko-praktiko bat eginen da familiei eta irakasle ez diren langileei zuzendua.
4. **Eskola-baratzearen sorrera** (halakorik ez balitz), lehenbiziko ikasturtean zehar.
5. **Ikastetxean talde eragile bat eratzea**: ikastetxeko hezkuntza-etapa bakoitzeko irakasleen ordezkariak eta zuzendaritza-taldeak osatua.
6. **Bilerak, jarraipena eta esperientzien trukea egiteko**: hiru hilabete bakoitzean bilera bat eginen dute ikastetxe bakoitzeko talde eragileek, esperientziak elkarri trukatzeko eta proiektuaren jarraipena egiteko.
7. **Laguntza iraunkorra**, Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako lantaldearen eskutik.
8. **Baratzearen eguna ospatzea** ikastetxe bakoitzean.
9. **Iruñeko eskola-baratzen topaketan parte hartzea**. Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako lantaldeak antolatzen du topaketa.



10. **Prozesuaren dokumentazioa:** hiru hilekoan behin, egindako jardueren erregistro bat igorriko zaio Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako lantaldeari, horretarako prestatu diren fitxa batzuk beteta.

## 5.2. Bigarren ikasturtea

1. **Irakasleen prestakuntza:** aukera egonen da irakasle berriek prestakuntza jasotzeko.
2. **Bilerak, jarraipena eta esperientzien trukea egiteko:** hiru hileko bakoitzean bilera bat eginen dute ikastetxe bakoitzeko talde eragileek, esperientziak elkarri trukatzeko eta proiektuaren jarraipena egiteko.
3. **Laguntza iraunkorra,** Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako lantaldearen eskutik.
4. **Baratzearen eguna ospatzea** ikastetxe bakoitzean.
5. **Iruñeko eskola-baratzen topaketan parte hartzea.** Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako lantaldeak antolatzen du topaketa.
6. **Prozesuaren dokumentazioa:** hiru hilekoan behin, egindako jardueren erregistro bat igorriko zaio Iruñeko Udalaren Ingurumen Hezkuntzako lantaldeari, horretarako prestatu diren fitxa batzuk beteta.

Hirugarren ikasturtetik aitzina, ikastetxeek segituko dute Iruñeko Baratze Ekologikoen Sareko kideak izaten, eta horrek bidea emanen die aldiari behin baratze jarduerari buruzko informazioa jasotzeko eta esperientziak zein sor litezkeen beste ekimen batzuk elkarri trukatzeko xedez egiten den Eskola Baratzeen Topaketan parte hartzeko.



## 6. BALIABIDEAK

Ingurumen Hezkuntzako lantaldeak honako baliabide hauetaz hornituko ditu ikastetxeak programa gara dezaten:

### 6.1. Baliabide didaktikoak

Ingurumen Hezkuntza lantaldeak honako baliabideak eskeintzen ditu proiektua aurrera eramateko:

- “Ikasgelatik Lurrera” Unitate Didaktikoa”, [euskaraz](#) zein [gazteleraz](#) .
- Irakaslegoarentzako formakuntza bideokak, [euskaraz](#) zein [gazteleraz](#)
- Ikasleekin baratze batean garatzeko lantegi proposamen sorta [euskaraz](#) zein [gazteleraz](#).
- “[Baratze-saskia](#)” material bidaiaria mailegu gisa, baratzearen inguruko jolas eta proposamenekin.

### 6.2. Giza baliabideak

Iruñeko Udalak **Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea** jarriko du proiektuaren eskura, aholkularitza teknikoa eta laguntza eman ditzan. Hasieran, lantaldeak proiektua bultzatu eta babesa emanen die proiektuaren esparruan egiten diren jardueri. Programan aurrera egin ahala, laguntza hori murriztuko da eta ikastetxe bakoitzeko talde eragileak hartuko du lema.

### 6.3. Baliabide ekonomikoak

Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek aurrekontu-partida bat edukiko dute. Lehen ikasturtean, batez ere baratzea sortzeko edo, beharrezkoa balitz, hobetzeko erabiliko da dirua, eta bigarrean, ikastetxeak materialak, zerbitzuak eta abar erosten ahalko ditu, eskola-proiektua babestu edo hobetzeko xedez.

### 6.4. Baliabide materialak

Programan parte hartzen duten ikastetxeek lurra eta landareak jasoko dituzte Iruñeko Udaleko Lorategi Zerbitzutik.



## 7. KONPROMISOAK

Iruñeko eskola-baratzen programa arrakastatsua izan dadin inplikaturako aldean konpromisoa –Iruñeko Udalarena eta ikastetxeena– ezinbestekoa da. Nork bere aldetik, konpromiso hauek hartuko dituzte bere gain:

Iruñeko Udalaren konpromisoak	Ikastetxearen konpromisoak
<ol style="list-style-type: none"><li><b>Proiektuan laguntzea:</b> Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak (IHL) konpromisoa hartzen du <b>proiektuan laguntzaile gisa aritzeko</b>, proiektua abiatzean laguntza teknikoa eta babesa emanez.</li><li><b>Baliabide ekonomiko zein materialez</b> hornitzen laguntzea eskola-baratzea sortu eta mantentzeko.</li><li><b>Prestakuntza ematea, Hezkuntza Departamentuaren ziurtagiriaz, lehen ikasturtean:</b> Ingurumen Hezkuntzako lantaldeak prestakuntza emanen die irakasleei, dela bere kabuz dela beste entitateekin elkarlanean, programari lotutako zenbait alderdiren gainean. Hezkuntzako Departamentuak trebakuntza hori aitortuko du.</li><li><b>Ebaluatzeko eta esperientziak elkarri trukatzeko hiruhileko bilerak</b> antolatzea.</li><li>Lehen ikasturtean, <b>ikasleekin lantegiak</b> antolatzea.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li><b>Eskola Kontseiluaren eta Klaustroaren onespena programan parte hartzeko.</b></li><li><b>Proiektuan 2 ikasturtez egoteko</b> konpromisoa.</li><li><b>Arduradun bat</b> izendatzea proiektua ikastetxean aurrera eramateko.</li><li><b>Talde eragilea</b> sortzea, hezkuntza-etapa guztietako irakasleek eta zuzendaritza-taldeak osatua.</li><li>Lehen ikasturtean, klaustro osoak <b>nahitaezko prestakuntza</b> jasotzea.</li><li><b>Hiruhileko bileretan</b> parte hartzea.</li><li>Iruñeko Eskola Baratze Ekologikoen urteko <b>Topaketan</b> parte hartzea.</li><li>Proposatutako <b>lantegiak</b> egitea ikasle, familia eta irakasle ez diren langileekin.</li></ol>



- |  |  |
|--|--|
| <p>6. Lehen ikasturtean zehar, <b>lantegi bat egitea familiekin eta irakasle ez diren langileekin.</b></p> <p>7. <b>Eskola Baratze Ekologikoen urteko Topaketa</b> antolatzea.</p> <p>8. Udalaren komunikazio-tresnak eskura jartzea, proiektua hedatzeko.</p> | <p>9. Eskola-baratzea <b>curriculumean txertatzea</b>, hiruhilekoan behin gutxienez jarduera bat eginda.</p> <p>10. <b>“Baratzearen eguna”</b> ikastetxean antolatzea.</p> <p>11. Hiruhilekoan behin <b>dokumentazioa</b> (fitxen formatuan) betetzea eta Ingurumen Hezkuntza Zerbitzura igortzea, egindako jarduerak deskribatzeko.</p> |
|--|--|





## 8. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren iritziz, ebaluazioa etengabeko hobekuntza-prozesua da, eta ikastetxeen eta Udalaren arteko feed-backa, aukera emanen duena proiektua ikastetxe bakoitzaren beharrei egokitzeko.

Programaren ebaluazioa ekintza ezberdin hauen bidez gauzatuko da:

- Hiru hilean behingo bilerak.
- Ikasturte amaierako balorazio-jardunaldia, irakasle guztiekin.
- Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearen aldizkako bisitak ikastetxera.
- Lantaldeak ikasturtean zehar jasotzen dituen iradokizun eta ekarpenak (posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurreko bisitetan).
- Iruñeko Eskola Baratzen Sarearen topaketa.

Ikastetxeek konpromisoa hartuko dute lantalde teknikoari beharrezko informazioa bueltan bidaltzeko, hezkuntza-proiektuaren ebaluazio egokia egin dezaten eta beharrezko giza baliabideak ezartzeko, proiektuaren garapena jasotze aldera.

## 9. PROGRAMAN PARTE HARTZEA

Programan parte hartzeko interesa duten ikastetxeek programaren deialdiari buruzko xehetasun hauek beteko dituzte:

### 9.1. Hartzaileak

Programa hau Iruñeko udal-mugarteko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, betiere Eskola Kontseiluan eta Klaustroan onetsi badute programa honetan parte hartzea.

### 9.2. Eskaearak

Programan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea **otsailaren 24an hasi eta martxoaren 24an amaituko da, 14:00etan**. Izena emateko orriak **posta elektronikoz** bidali beharko dira helbide honetara: [educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es) **gaian "Iruñeko eskola baratze ekologikoak" adieraziz**.

Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Izena emateko fitxa: sakatu [hemen](#)
- Proiektua Eskola Kontseiluan onetsi izanaren egiaztagiraren kopia
- Proiektua Klaustroan onetsi izanaren egiaztagiraren kopia
- Proiektua (I. eranskina)
  - Lan-proposamena



- Hezkuntza-komunitate osoa barne hartzen duten proiektuetan aldez aurretik izandako esperientzia
- Aldez aurreko esperientzia ingurumen-hezkuntzari lotutako proiektuetan

Agiriak **5 orriko luzera** izanen du, gehienez ere, bi aldeetatik idatzita. **Eranskin gisara bidali beharko dira mezu elektronikoan**, eta inoiz ez deskargatzeko esteka gisa.

Lanei buruzko edozein zalantza argitzeko, helbide elektroniko horretara edo 948 420 984 telefono zenbakira jo beharko duzu.

### 9.3. Hautaketa

Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako zerbitzuak eginen du hautaketa, eta parte hartzen duten ikastetxe guztiei emanen die emaitzaren berri. Halaber, deialdia bete gabe uzten ahalko da, uste bada proposamen bakar batek ere ez duela ezaugarri nahikorik biltzen proiektua garatzeko.

Honako hauek izanen dira hautaketarako irizpideak:

- Lehenetasun-hurrenkera: ikastetxe publikoak, itunduak eta pribatuak (%20).
- Esperientzia hezkuntza-komunitatea osatzen duten proiektuetan (%10).
- Esperientzia ingurumen-hezkuntzan (%10)
- Lan-proposamena: curriculumean txertatzea (%20), hezkuntza-komunitatea engaiatzea (%15) eta ekintza-plana (%15)
- Aurreko urteetan proposamena aurkeztu izana (%10)



## I. ERANSKINA: PROIEKTUA

### Ikastetxearen eskarmentua Ingurumen- hezkuntzan

### Eskarmentua Hezkuntza-komunitate osoa barne hartzen duten proiektuetan

### Lan-proposamena

- **Curriculumean sartzea:** baratzearen inguruan egindako lana curriculumean txertatzeko modua.
- **Hezkuntza-komunitatea txertatzea:** proiektuan parte hartzeko modua.
- **Ekintza-plana 2023-2024ko ikasturterako:** ekintza-proposamena eta haien denbora-banaketa, 'Eskola Baratze Ekologikoa' proiektua pedagogikoki abiatzeko.

OHARRA: Ekintza-planak baratze gai teknikoei eta logistikakoei dagokienak (materiala eskuratzea, etab.) IZAN EZIK, curriculumean txertatzeko eta hezkuntza-komunitatean sartzeko aurreikusitakoak ere barne hartu behar ditu, aurreikusitako jarduketan artean.

Proiektuak 5 orriko luzera izanen du, gehienez ere, bi aldeetatik idatzita.